



Kontratazio
publiko elektronikoa
Contratación
pública electrónica

**Eusko Jaurlaritzaren
Kontratazio
Elektronikorako
Sistemaren bidez
jasotako eskaintzen
inpresio-kalitatea**

www.contratacion.info
www.euskadi.net/kontratazioa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

14



Eusko Jaurlaritzako kontratazio sistema elektronikoen bidez jasotako eskaintzak inprimatzean kalitatea ziurtatzeko prozedura.

Eusko Jaurlaritzako kontratazio elektronikoen ereduaren abian jartzeak euskal enpresentzat "esperimentatzeko eta ezagutzeko aukera" dakar. Izan ere, laster Administrazio guztiek (Gobernuek, Foru Aldundiek, Udalek) nahitaez ezarri beharko baitute mekanismo hori.

Eskaintzak lizitatzen duenaren ordenagailuan prestatzen dira eta handik internetez igorri. Ondorioz, enpresak abantail hauek lor ditzake:

- Eskaintzak prestatzeko eta taxutzeko denbora gehiago izan.
- Prozesatzeko denbora murriztu.
- Administrazio-agiriak prestatzerakoan egon daitezkeen lana eta akatsak gutxitu.
- Eskaintzak egiteko edo irekiera ekitaldira joateko mugitu beharrik ez.
- Joan-etorrietan egon daitezkeen ezusteak eta atzerapenak ekiditu, ohiko lizitazio prozesuetan eskaintzak administrazioa eramateko prozesuan gerta daitezkeen istripuak eta gorabeherak sahistu.
- Postako eta mezularitzako gastuak gutxitu.





Eredu erraz, erabilgarri
eta segurua



Kontratazio publiko elektronikoaren bidez jasotako eskaintza digitalen tratamendua

Prozesu publikoetan eskaintzak egitea enpresetako fakturazioaren zati garrantzitsua da. Eusko Jaurlaritzako agintariek eta teknikariek gogoan daukate eskaintzak egiten dituzten enpresa guztientzako prozesu kritikoa dela eta ez dela ariketa teoriko edo akademiko hutsa.


Horregatik, kontratazio publiko elektroniko ereduak kontratazio espedienteko ziklo osoa hartzen du; hasi eskaintzak modu digitalean aurkezten direnetik eta kontratua esleitu arte. Horren bidez, kontratazio elektronikoaren kudeaketa zikloan eskaintzak egiten dituzten enpresek gutxi ezagutzen duten prozedura bat betetzen da: kontratazio publiko elektroniko bidez jasotako eskaintza digitalen tratamendua.

Eskaintzen irekiera publikoa amaitutakoan, kontratazio mahaiko idazkariak teknikarien esku jarriko ditu eskaintzak ebaluatzeko. Eskaintzaren tipologia kontuan hartuta, teknikariek eskaintzak honako tipologia hauetako batean edo bietan aztertuko dituzte:

- Ordenagailuko pantailan eskaintzen fitxategi digitalak ikusiz.
- Paperean ikusi eskaintzen fitxategiak inprimituz.

Eusko Jaurlaritza ohartzen da paperez egiten diren ohiko eskaintzetan enpresek asko zaintzen dituztela itxura, kalitate grafikoa eta inprimatutako materialak. Guztiz hasieratik dauka Eusko Jaurlaritzak enpresak kontratazio elektroniko erabiltzeko "aurkezpena muga" sortu daitekela batzuetan, eta hori ez gertatzeko bitartekoak jarri ditu.


Eskaintzen inprimaketa-
kalitatea ziurtatzeko modua



Eskaintzen irekiera ekitaldi publikoa



Eskaintzen fitxategiak inprenta eta erreprografia zerbitzura bidali




Eskaintzak inprimatu eta prestatu





Eredu erraz, erabilgarri
eta segurua



Inprimatutakoaren kalitatean ziurtatzeko prozedurak duen garrantzia

Kontratazio publiko elektronikoen eredua ezartzeko plan zuzentzailea onartu zuen Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeko akordioak agintzen du eskaintzen inprimatutako kalitatea ziurtatzeko prozedura abian jartzea.

Prozedura hori Eusko Jaurlaritzako Baliabide Orokorren Zuzendaritzako Inprenta eta Erreprografia Zerbitzuak eta Kontratazio Publiko Elektronikoa Ereduko arduradunek adostutakoa da.

Horrela, bada, euren izaeragatik hala eskatzen duten espediente haiei eta diskriminazio oro ekiditeko, kalitate-konpromisoa ziurtatzen zaie honakoekin:

- Dokumentu den-dena eta kalitate handiko koloreekin inprimatzeko bermea.
- Eskaintza guztiak modu berean eta kalitatez jarriko dira karpitetan, nola formatu digitalean jasotakoak hala paperean jasoak.

Konpromisoa betetzeko, jarraibide hauek ditugu:

- Eskaintzen irekiera publikoa egindakoan, Inprenta eta Erreprografia Zerbitzuak aplikazio elektronikoen bidez jasotako eskaintzen fitxategiak eskura jarriko zaizkie.
- Eskaintzak inprimatu eta prestatu egiten dira eskaintzen inprimaketa-kalitatearen konpromisoan ezarritakoaren arabera.
- Azkenik, eskaintza guztiak kontratazio mahaiko idazkariari igortzen zaizkio eskaintzak aztertu behar dituztenen esku jartzeko materiala.





Inprimatzeko bitarteko berriak jarri dira eskaintzen inprimaketa-kalitatea ziurtatzeko

Eusko Jaurlaritzako Baliabide Orokorren Zuzendaritzako Inprenta eta Erreprografia Zerbitzuan honako baliabide berri hauek jarri izan dira eskaintzen inprimaketa-kalitatea berariaz bermatzeko:

- Inprimatzeko teknikari laguntzaile bat.
- Kalitate handiko inprimagailu berri bat.
- Plotter bat koloreetan plano handiak inprimatu ahal izateko.
- Kalitate handiko papera (150 gramoko pisuduna).
- Karpetan sartzeko sistema moderno eta kalitatezkoa.
- Estetika berdina eskaintzen azalentzat. Azal hori kontratazio publiko elektronikoredukorako garatu den korporazio irudiari lotuta dago.

